

## BAI eta EZ

«BAI»... «EZ»..., berba laburrak, baina sakon ta zabalera haundikoak, eta ondoren luze astunak dakarrezanak.

Gizon bakoitzaren neurria be berba horretxetan agertzen da. Erabagiak har-tzerakoan, zeri edo nori «bai» edo «ez» esaten deusagun ikusita, orduan emoten dogu bakoitzak geure neurria. Emoten dogun «bai» edo «ez» horregaz noraino lotuta bizi garean aztertuta; emondako berbea jan, ukatu naiz aldatu egiten dogula ohartuta, horra gizonaren neurria.

«Bai» eta «ez»... «ez» eta «bai»... Gaur «bai» eta bihar «ez», hor dozu badaezpadako gizona; beti «ez» eta «bai», hor nun etenbako eztabaida. «Ez» eta «bai», mutu egonda be, norbere jokerez behingoan agertzen doguna.

«Bai» eta «ez», pertsona bakoitza egin naiz deseginten dauan jokabidea, bizitzazko jokabidea; osotasunera eroan, naiz erdikinean izten dauan jokabidea.

«Bai» eta «ez», egia ta guzurra banatzen dituen berbak. Bai baina..., ez baina; bai-edo, ez-edo. Zer da egia? Nun dago egia? Zer da ona? Zer da txarra? Lehenago dana pekatua, gaur dana libre! Ni txiki nintzanean, hau, hori ta bestea txarra zan; gaur holakorik inork aitatu be ez; atzo egia, gaur guzurra! Se-

kula holakirik! Lehenago «bai» ta «ez» jakinagoak ziran, heuren muga ta guzti, orduan bai egola ziurtasuna! Lehen, ona ta txarra zer zan begi-bistan egoan; ezertan dudarik ba zan, behingoan argituko euskuen liburuak. Gaur nork jakin zer? Ixiltzea ez obe? Aitita-amamak ez dakie ezer, ikastolatik datorren ilobatzoak hobeto daki. Hau da saltsa-maltsa sortu yakuna! Zer egin? Burua urratzen ibili batzarrik batzar eta batzarrik batzar? Ez da hobe izango norbere erara jokatu, danai ta danari or konpon eginda, ari-keta txispaz edo tximistaz argia sortu arte?

Nire gaurko Iorrotz honeik be «bai» eta «ez» izango dira, antza. Halan izan behar, honen aurrean be bakoitzak jarrera bat hartu behar. Basosail haundiak dira honeik, haizkorakada batzuek kaz dana argitan ipinteko. Batez be, egia, jakiteko barik, biziteko hartzen danean, orduan da gatxa ta luzea bide hau. Eta gauzak jakitearren jakiteak ezer probetxu haundirik ez deusku ekarriko; eta gizon ahundia egian ibili ta egia bizi dauana da. Hain zuzen be, horrexek daki ondoen zer dan egia: bere bizi bihurtu dauanak.

Nik neuk, gaur hasta dodan sail honenagaz, hauxe besterik ez dot bila: neure usteko argi honegaz zeuri be argi egin, edo egin gura. Aspaldion ezagun eta adiskide barru-barrukoa dodan TXOMIN lagunagaz txitean-pitean izaten dodazan eztabaidak eta jardunaldiak

guztion aurrean ipiñi, norbaitek erdi-  
amatauan daukan pipara txingarra  
urreratuz. *Txomin* lagunaren ateral-  
diak eta itaun-galderak nahiko zer pen-  
tsau emoten deuste, eta buru-ganbaran  
hainbeste urtetan pilatu yatazan *zerak*  
*zer* diran kezkatan jarten naz. TXOMI-  
NEK eta biok urkulduko doguz lehe-  
nengo artaburuak; gerora, zeuk be, gura  
badozu, parte hartu zeinke; bialdu zeure  
kezka ta argitasunak, gitxienez. Beste  
barik, datorren ilera arte.

Zein pozgarri dan gizonarentzat  
gauzak buruz jakitea!  
Pozgarriago begiz ikusi  
naiz eskutan eukitea.  
Baina bihotzez hartu  
eta maitez hausnartu...  
hau da, onena, maitea!  
Egia ulertzeko, behar da  
egi-egiz bizitea!...

A. MARTZEL, *cp.*